

8M

Urte osoan, une oro

GENERO BERTINTASUNAREN ALDE

Militantzia sindikala eta feminista gora doaz urtero, mugimenduaren izaera gero eta globalagoa da. Transbertsalitate integratuta dago belaunaldi ezberdinetako emakumeak jasoz, 70. hamarkadan benetako eskubideak eta legearen aldaketa eskatzen hasi ziren horietatik, horien bidea jarraitu duten alaba eta bilobetaraino, azken hauek bidearen zati handi bat egina eta zenbait eskubide lortuta dagoeneko. Feministok arrazoi asko dugu pozik egoteko urte askotako borrokaren emaitzarekin foro, herri, indar eta erantzukizun ezberdinetatik, baina oraindik ere aldaketa gehiago behar ditugu. Laguntza handiagoa, konpromiso gehiago eta jende gehiago norabide berean.

FSC-CCO0tik lanean jarraitu dugu beti, eta helburua horrela jarraitzea da, baina ez dago gure menpe soilik. Horregatik erabiltzen dugu oraindik ere martxoaren 8a aldarrikapen egun eta batera gune moduan, baita martxoaren 8 borrokalari honi jende gehiago batu dadin eskatzeko.

FSC-CCO0tik eskatzen dugu:

- 1. Geure agenda garatu eta defendatzea.** Emakumeok ezin dugu utzi agenda beste batzuek inposatzea, geu gara geure beharrak ezagutzen ditugunak eta horiek behar dituzten denbora kudeatzeko ahalmena dugunak. Agenda eraikitzailea da, lanean jarraitzeko, bidean lagunduko diguten emakume eta gizonak gehitzen jarraitzeko geure abilezia eta esperientziaz baliatuta. Orain eta etorkizuneko agenda izan behar du, beti aurrera begira baina nondik gatozen ahaztu gabe. Erronka asko lortu ditugu dagoeneko baina azken helburura benetako berdintasuna lortzea da. Ahalduz eta sororitatez irabazten da. Gure aniztasunak ezin gaitu batzen gaituenaz aldendu.
- 2. Pedagogia egitea beharrezkoa da, diskurtso landuarekin, bakarra eta unibertsala,** goazen toki guztietara eraman behar duguna, geure feminismoa eskuinekoarenetik berezita.
- 3. Oraina zaintzak dira,** eskubidea dugulako zainduak izateko eta denbora eta erantzukidetasunetik zaintzeko betebeharra, ez emakumeon lan moduan baizik eta emakume eta gizonena.

- 4. Soziala eta publikoa dena babestea etxera eraman nahi gaituzten politika liberalen aurkako antidoto moduan,** neskamearen mundura, bereziki etxeko lan eta zaintzen eremura, eremu publikotik aldenuz. Lan munduarekiko irekiera babestu behar dugu, eta horretarako familien zaintzan lagunduko duten kalitatezko zerbitzu publikoak behar ditugu.
- 5. Kalitatezko enpleguaren aldeko borroka.** Sustapena eta prestakuntzaren alde eta partzialtasuna, denborazkotasuna eta soldata baxuen aurka. Lan esparruan enpresak behartu berdintasunaren prestakuntza egitera.
- 6. Negoziazio kolektiboan parte hartu.** Ordu malgutasunaren aldeko neurriak sustatu, zaintza ordu-poltsak, baimenak hobetu edo jardunaldiaren egokitzapena kontziliazioan lagundu eta erantzukidetasuna sustatuko duten neurrien artean. Negoziazio kolektiboaren markoan eta enpresa, lantoki edo sektore bakoitzaren errealitatera egokituak.
- 7. Soldata arrakala ezabatu.** Errealitatea ikusi eta zuzentzen laguntzen duten berdintasun planek ez dute soldata desberdintasunekin bukatu. Bere langileen artean soldata arrakala badagoela ezagutzen enpresak jarraitu behar dira datuak ezkututzen dituztenak neurririk ez hartzeko.
- 8. Lan osasuna eta laneko gaixotasunen hautematea indartu,** "gizonak baitira gaixotzen direnak eta emakumeak higadura pairatzen dutenak". Genero perspektibadun lan arriskuen ebaluazioek derrigorrezkoak izan behar dute emakumeak ikustarazi daitezten eta laneko osasun arazoei arreta eman diezaieten.
- 9. Indarkeria matxisten aurka borrokatzen jarraitu,** lantokian eta gizartean. Enpresek sexu jazarpen eta sexu arrazoiengatik jazarpenaren aurrean protokoloa izan behar dute langileen legezko ordezkariarekin itundua, edo egongo ez balitz langileekin.
- 10. Digitalizazioan dagoen genero eragina desagerrarazi.** Genero arrakala digitala badaguelako, emakumeen %13k bakarrik egiten duela lan karrera edo lan espezializatueta ez dutelako informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbiderik izan. Prestakuntza falta horrek enpleguan eragiten du zuzenean eta soldata hobearen lanbidetarako bidea oztopatzen du. Prestakuntza ezinbestekoa da.

ESKUBIDEAK EZ DIRA OINORTZETZAN HARTZEN, HORREGATIK BEHARREZKOA DA BORROKA FEMINISTA. ELKARREKIN ERAIKIKO DUGU ORAIN ETA EOTRKIZUN BIDEZKOAGOA.

